

HODEI BELTZEZ  
ETA GRISEZ  
ESTALI DA ZERUA.  
TXURIZ JANTZITA DAUKA  
AIZKORRIK BERE BURUA.  
ABENDUAK EKARRI DIGU  
AURTEN ERE NEGUA.<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> Beste gaia: KOLOREAK

EGUZKI AMANDREA  
ZER DAKARZU BERRI?  
NEGUA DUGU  
ETA  
ELURRA UGARI.<sup>2</sup>

---

<sup>2</sup> Txalo Pin Txalo 2 liburutik.

**UMEEN JOLASGURA:  
BOLAK EGIN, BOLAK TIRA.  
TIRA, BADA, UMEOK  
GOAZEN JOLAS EGITERA.** <sup>3</sup>

---

<sup>3</sup> Ibaizabal argitaletxea.

ELUR MELUR  
EZ GARA ZURE BELDUR  
ETXEAN BADUGU  
EGUR ETA TXUNGUR.

JANTZI TXANOA,  
JANTZI TAPAUKA,  
ETA GOAZEN JOLASTERA!  
LAGUNARTEAN, ELUR BOLEKIN,  
GOIZETIK GAUERA. <sup>4</sup>

---

<sup>4</sup> Zubia-Santillana argitaletxea.  
Beste gaia: JANTZIAK

KANTA, KANTA  
TXANTXANGORRI.  
KANTA KANTA  
GORRI GORRIA:  
NEGUA DA ETORRI. <sup>5</sup>

---

<sup>5</sup> *Jiran-Biran*, Pello Añorga.

NEGUA HELDU DA  
ETA ELURREZ ESTALI DA MENDIA.  
NIK JANTZIKO DITUT BUFANDA,  
TXANOA ETA BEROKIA.  
HOTZA DAUKA NIRE PANPINAK  
ETA JANTZI BEHAR DIZKIOT  
BURUAN TXANOA  
ETA OINETAN BOTAK,  
BEROKIA, ESKULARRUAK;  
ETA BUFANDA...?  
BAITA.<sup>6</sup>

---

<sup>6</sup> *Fantasia* Aizkorri argitaletxea.

Oharra: panpina batekin egin. Olerkia esaten duten bitartean panpina jantzi (paperezkoa izan daiteke).